



ALDIZKARI OFIZIALA

BOLETIN OFICIAL

X LEGISLATURA

X AGINTALDIA

Serie B Información, control e impulso

XXV Proposición no de norma

Informazioa, kontrola eta sustapena **B Saila**

Arauz besteko proposamena **XXV**

Número 519a

Bilbo, 2018ko azaroaren 9a
Bilbao, 9 de noviembre de 2018

519a Alea

ASUNTO: El abastecimiento de aguas en Karrantza.

AUTOR: David Lopategi / Josean Elgezabal

Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas

La Mesa de las Juntas Generales, en su sesión de fecha 6 de noviembre de 2018, con relación al asunto de referencia, adoptó los siguientes Acuerdos:

Tramitación: Admitir a tramite.

Calificación: Conformidad con la calificación propuesta por el autor

Órgano Destino de Tramitación: Sostenibilidad y Medio Natural

Procedimiento de Tramitación: Normal

Plazos:

Presentación de enmiendas a la proposición no de Norma: 7 días. Finaliza el 20 de noviembre, a las 18:30 horas

Otros acuerdos

Ordenar la apertura del plazo de enmiendas

Ordenar Publicación en el BOJJGG

Ordenar traslado a los efectos de lo previsto en la regulación aplicable

Regulaciones:

Reglamento: Artículo 175 y sgts. Artículo 92

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 92 del Reglamento de la Cámara, se ordena su publicación para general conocimiento.

Sede de las Juntas Generales de Bizkaia, en Bilbao, 6 de noviembre de 2018.- La Presidenta de las Juntas Generales, **Ana Otadui Biteri**

A LA MESA DE LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA

David Lopategi Escudero, portavoz suplente del Grupo Juntero EH Bildu y Josean Elgezabal Dueñas, portavoz suplente del Grupo Juntero Podemos Bizkaia presentan la siguiente Proposición No de Norma sobre el abastecimiento de aguas en Karrantza:

JUSTIFICACION

La gestión del agua es uno de los grandes retos y debates a los que se enfrenta nuestro territorio, no solo en términos de infraestructuras, sino también en terminos económicos y ecológicos.

GAIA: Uraren honidurea Karrantzan

EGILEA: David Lopategi / Josean Elgezabal

Bideraketarako onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea

Aitatutako gaia dala-ta, hurrengo Erabagiak hartu ditu Batzar Nagusietako Mahaiak 2018ko azaroaren 6an izandako bileran:

Bideraketea: Bideraketarako onartzea

Sailkapena: Egileak proposatutako sailkapenagaz ados

Organo hartzailea: Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako Batzordea

Prozedurea: Arrunta

Epea:

Arauz besteko proposamenari zuzenketa-eskeak aurkezteko: 7 egun. Amaieraa: Azaroaren 20an, 18:30etan

Beste erabagi batzuk

Zuzenketa-eskeak aurkezteko epea edegiteko agintzea

BBNAn argitaratzeko agintzea

Bialtzeko agintzea, araudi aplikagarriak aurreikusitakoaren ondorenetarako

Araudi oinarria:

Araudia: 175. artikulua eta hurreng. 92. artikulua

Guztiak horren jakitun egon daitezkan, argitaratzea agintzen da, Batzar Nagusien Araudiaren 92. atalean zehaztutakoaren arabera.

Bilbon, Bizkaiko Batzar Nagusietako egoitzan, 2018ko azaroaren 6an.- Batzar Nagusietako Lehendakaria, **Ana Otadui Biteri**.

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO MAHAIARI

David Lopategi Escudero EH Bildu taldeko taldeburuordeak eta Josean Elgezabal Dueñas Podemos Bizkaia taldeko taldeburuordeak honako arauz besteko proposamena aurkezten dabe Karrantzako uren hornidureari buruz.

ARRAZOIKETEA

Uraren kudeaketea da gure Lurraldeak dituan erronka eta eztabaidagai nagusienetariko bat, azpiegituren ikuspegitik zein ekonomiarenetik eta ekologiarenetik be bai.

El actual gobierno foral del PNV-PSE apuesta clara y decididamente por la integración de todos los ayuntamientos del territorio en un único consorcio, el Consorcio de Aguas de Bilbao-Bizkaia. Esta apuesta política no tendría mayores problemas si se hiciera desde la horizontalidad y el ejercicio a la libertad de decisión de los ayuntamientos, a quienes la Diputación siempre dice considerar instituciones "independientes y mayores de edad". Y lo que es más grave aún, las consecuencias que está trayendo en aquellos municipios y comarcas la aplicación de esta decidida apuesta: supresión de financiación y de inversión en infraestructuras en aquellos municipios que no quieren "pasar por el aro" porque consideran que pueden hacer una adecuada gestión del agua desde su municipio.

El problema es que la DFB actúa de diferente manera según el color del gobierno municipal de turno. Y eso es lo que está pasando en Karrantza, donde desde que el PNV perdió la alcaldía, la actitud de la Diputación cambió radicalmente. Karrantza es uno de los municipios más extensos de Bizkaia, con las dificultades que conlleva en la red secundaria, y con un gran consumo de agua debido a la actividad ganadera, principal economía del Valle.

Karrantza es también uno de los municipios bizkainos con mayor tasa de paro (19%) del territorio. La apertura, de nuevo, de una planta de lácteos a manos de una empresa catalana, tendrá gran repercusión económica en el sector y en el empleo de la comarca. En palabras de los responsables de la industria láctea, las previsiones de producción de la planta son mayores de las inicialmente previstas, por lo que el empleo que generará, el impacto económico también será mayor. Como lo será también el consumo de agua necesario para su funcionamiento.

Para satisfacer el consumo de agua que estima la planta (1000m³/día), además de la demanda existente, la Diputación contemplaba un proyecto para realizar una conducción directa desde una EDAR hasta la planta. Hoy en día, aún no hay EDAR ni proyecto de conducción posible, salvo integración en el Consorcio. Un chantaje y coacción intolerable, habida cuenta de que la DFB ya ha hecho inversiones y desarrollado proyectos similares en Ayuntamientos no consorciados.

Por todo ello, hacemos la siguiente Proposición No de Norma, para su debate en la Comisión de Sostenibilidad y Medio Natural:

Las Juntas Generales de Bizkaia instan a la Diputación Foral de Bizkaia a llevar a cabo el proyecto ya previsto de conducción directa de agua a la planta de lácteos de Karrantza con independencia de que éste se consorcie o no.

Bilbao, 30 de octubre de 2018

David Lopategi Escudero,
Portavoz suplente del grupo EH Bildu

José Angel Elgezabal Dueñas,
Portavoz suplente del grupo Podemos Bizkaia

PNV-PSEk gaur egun osatzen dabe foru gobernua apustu argi eta irmoa egiten dau Lurraldeko udal guztiak uren partzuergo bakarrean sartzearen alde, egin-eginean Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoan. Apustu politiko horrek ez leuke bestelako arazorik eragingo baldin eta horizontaltasunez eta udalek askatasunez erabagita gauzatuko balitz; izan be Aldundiak beti esaten dau udalei erakunde "independente eta adinez nagusi" deritxela. Are larriagoa da apustu irmo horrek udaleri eta eskualde batzuei dakartsen ondorioa: herritik bertatik uraren kudeaketa egokia egin leikiela eretxita, partzuergo horretan sartzera "makurtzen ez diran" udalei finantzaketa eta azpiegituretarako inbertsinoa kendu egiten jake.

Gauzea da BFAk batera edo bestera jokatzeko dauela dana dalako udal gobernuan nor dagoan ikusita. Horixe da Karrantzan jazoten dana, non EAJK alkatetza galdu ebanetik hara, Aldundiaren jokabidea erabat aldatu zan. Karrantza Bizkaiko udalerririk handienetarikoa da, eta horrek zailtasunak dakar bigarren mailako sarean, eta ur kontsumo handia be bai, abeltzaintza —haraneko jardura ekonomiko nagusia— dala-eta.

Karrantza Bizkaian langabezia-tasa handienetarikoa (%19) dauen udalerria be bada. Enpresa kataluniar baten eskuetan dagoan esne-enpresa bat barrero edegiteak eragin handia izango dau eskualdeko sektorean eta enpleguan. Esne-enpresearen arduradunek esan dabenaren arabera, planta horren ekoizpen-aurreikuspenak jatorriz egozanak baino handiagoak diranez, handiago izango dira sortutako lanpostu kopurua eta eragin ekonomikoa. Halanda ze, funtzionatzeko ur gehiago be beharko dau.

Gaur egun dagoan ur-eskariak ganera, planta horrek izan leiken ur-kontsumoa (1000 m³/eguneko) hornitzeko, bada, Aldundiak asmotan erabilen proiektuaren arabera, ura zuzenean eroango zan UHA batetik plantaraino. Gaur gaurkoz ez dago ez UHArik, ez ura eroateko hoderik, baldin eta Partzuergoan sartzeko ez bada. Xantaia eta derrigortze onartuezinak, kontuan hartuta BFAk inbertsinoak egin dituala eta antzeko proiektuak garatu dituala Partzuergoan ez dagozan udalerrietan.

Horregaitik, bada, honako Arauz Besteko Proposamena aurkezten dogu, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturaleko Batzordean eztabaidatzeko:

Bizkaiko Batzar Nagusiek eskatu egiten deutesie Foru Aldundiari gauzatu daiala Karrantzako esne-plantara ura zuzenean eroateko daborduko aurreikusita dagoan proiektua, udalerria Partzuergoan sartzeko garabehera.

Bilbon, 2018ko urriaren 30an

David Lopategi Escudero,
EH Bildu taldeko taldeburuordea

José Angel Elgezabal Dueñas,
Podemos Bizkaia taldeko taldeburuordea